Gure seme-alabaren Bataioa

Bataioaren prestaketa eta ospakizuna da zuon seme-alabaren Erlijio esnaeran duzuen partehartzearen unerik garrantzitsuenetarikoa.

Zuon seme-alabaren onerako, argi izan behar duzue zer den Elizari haurrarentzako Bataioa eskatzea eta eskari horrek guraso bezala dakarkizuen konpromisoa ezagutu behar duzue.

Hausnarketarako puntu batzuk eskaintzen dizkizuegu Bataioari buruz, zehazki, haur baten Bataioari buruz, eta gurasoek beren seme-alaba bataiatuko duten ala ez erabakitzerakoan argitu eta kontuan izan behar dituzten arrazoi eta konpromisoei buruz.

Seguruenez, zuon seme-alabaren Bataioan pentsatuz, hainbat galdera sortzen zaizue. Beharbada, hauetako batzuk dira:

Zer da Bataioa?

Bataioa Kristau Sarbideko sakramentuetako bat da.

Zer esan nahi du horrek?

Atalka azalduko dugu. Sakramentua da, hau da: Jainkoaren presentzia ikusezinaren zeinu ikusgaia gure bizitzan.

Nola ulertu?

Konparazio baten bidez azaltzen saiatuko gara. Esate baterako: senar-emazteen edo guraso eta seme-alaben arteko maitasuna benetakoa da baina, aldi berean, ikusezina. Maitasun hori musu, fereka edo besarkada baten bidez adierazten denean, ikusgai bihurtzen dugu horren bitartez. Musua edo fereka, maitasun ikusezina ikusgai egiten duen zeinu dira. Musu edo besarkadak maitasuna ikusgai bihurtzen dute, maitasuna adierazi egiten dute eta, gainera, maitasun hori gaurkotu eta sendotu egiten dute, berritu eta finkatu. Zeinu eraginkorra dela uler dezakegu, beraz, zerbait adierazteaz edo irudikatzeaz gain, bere esanahia *benetan komunikatzen* duena.

Gauza bera gertatzen da sakramentuekin: Jainkoaren jarduera ikusezina gure artean era askotara *irudikatzen eta gaurkotzen* duten zeinu ikusgaiak dira.

Eta, zer da Kristau Sarbidea?

Prozesu bat da eta bertan, Ebanjelioaren lehenengo iragarpena jaso ondoren eta katekesiaren laguntzarekin, kristauak kristau elkarteko kide bezala Jesukristori jarraitzeak dakarzkion esanahi eta eskakizunak ezagutzen ditu.

Bataioa, Sendotza eta Eukaristia dira Kristau Sarbideko hiru sakramentuak. Sakramentu bakoitzean, sakramentu-zeinuen bidez, fededunak urrats berria ospatzen du Kristoren eta Elizaren bizitzan.

Zer esan nahi du zehatzago Bataioak?

Kristau Sarbideko lehenengo sakramentua da. Bataioa, zehazki, gure fedea ospatzeko eta Jainko Biziaren Seme den Jesukristo Berpiztuarekiko atxikimendua gauzatzeko aukera ematen digun sakramentua da.

Sakramentu honen bidez Jesusen jarraitzaile eta bere Elizako kide bezala biltzen eta lagun egiten digun Espiritu Santua geure egiten dugu.

Bekatutik askatzea dakarkigun sakramentua da eta, ondorioz, Jainkoaren seme-alabei dagokien askatasunean bizitzen laguntzen digu.

Hauek dira Bataioaren bistako elementuak: bataiatuaren gainera isurtzen den ura, Kristoren bizitza berrian sartzearen zeinu, eta Krismaz igurztea, bataiatuarengan sartzen den eta Jainkoaren seme-alaba bihurtzen duen Espirituaren zeinu.

Eta Bataioa haurren kontua da?

Kristau Sarbideko prozesu oro Jesusi jakinaren gainean eta beraiek erabakirik jarraitzea nahi duten pertsonen prozesua da. Baldintza horietan baino ez du zentzu beterik.

Elizaren lehenengo garaietan, bakarrik helduei uzten zitzaien Kristau Sarbideko hiru sakramentuak prestatzea eta ospatzea eta, normalean, batera egiten ziren.

Gaur ere, Sarbideko prozesua normalean kristauen gaztaroan edo helduaroan osatzen da, baina lehenengo urratsa -Bataioa- aurreratu egiten da haurrentzat gurasoek eskatuta. Gurasoek, beren aldetik, beren seme-alabak Kristau Sarbideko ibilbidean sustatzeko eta laguntzeko konpromisoa hartzen dute. Gurasoek eskatu behar diote Elizari Bataioa beren seme-alabarentzat eta haurraren geroko Kristau Sarbidearen garapena sustatzeko konpromisoa hartzen badute onartzen zaie eskaera hori.

Bikotean hausnartzeko eta solasean jarduteko

Batera irakur eta komenta ditzakezue ondoren aurkezten ditugun galderei lotutako puntuak. Horrela, erantzukizun handiagoz hartuko duzue zuon seme-alabarentzat Bataioa eskatzeko erabakia.

1. ZEIN PLANTEAMENDU EGIN DUGU GURE SEME-ALABAREN BATAIOAREN AURREAN?

• Bataioa ez da haurraren lehengo urteetako beste jarduera bat

Hau argi izan behar dugu. Askatasun eta erantzukizunez jardungo dugu honi buruz, gure seme-alaba fedean haztea geuri dagokigun erantzukizuna dela konturatzen garelako. Ez da egiteko zaila, baina badakigu fededun bizimodua eskatzen digula, hau da, fededun bezala bizi behar dugula bikote bezala eta gure seme-alabarekin.

• Bataioa ez da gure seme-alabari gerta dakiokeenaren aurreko bermea

Ez dugu beldurragatik bataiatzen. Badakigu Jainkoak gure seme-alaba bere seme-alaba bezala sentitzen duena. Jainkoa Aita-Ama da batez ere eta ez luke ezer txarrik nahi izango bere seme-alaba batentzat. Jainkoa poztu egiten da biziz beterik dagoen gure seme-alaba honengatik. Geuk maite dugun bezala maite du. Gure seme-alaba bataiatzea, beraz, ez da beldurra kentzea. Konpromisoa da, gure seme-alabak geuk maite dugun bezala maite duen Jainkoa ezagut dezan eta Harekin erlazionatzen ikas dezan.

• Bataioak bakarrik ez du gure seme-alaba kristau oso egiten

Bataioa ez da besterik gabe kristau, elkarteko kide bihurtzen gaituen jarduera magikoa.

Bataiatuak, kristau izateko, Jesusen mezua ere ondo ezagutu behar du, bere bizitzara eraman eta beste fededun batzuekin ospatu. Kristau bizitzarik gabeko Bataioa gauza hutsa eta zentzugabea da.

Horregatik, bataiatzeaz gain, ezinbestekoa da bizimodu jakin bati ekitea eta bizimodu horri ekiten lagundu behar diogu gure seme-alabari.

• Eta… bataiatzen ez badugu, eta berak erabaki dezala nagusitzen denean?

Gure seme-alabaren arlo guztietan horrela jokatzen badugu, seguru nagusitan desastre txiki bat izango dena. Erabakitzeko gaitasunik ez duen bitartean, beretzat mesedegarri den, hazten eta pertsona bezala heldutasuna jadesten laguntzen dion guztia ematen diogu gure seme-alabari. Egia da, nagusiago denean, berak erabakiko duela, baina zaila izango da ezagutzen ez duen edo inolako esperientziarik izan ez duen zerbaiten alde egitea.

2. ZERGATIK BATAIATU NAHI DUGU?

• Jainkoarengan dugun fedea transmititu, kutsatu nahi diogu

Jainkoak zeresan handia du gure bikote bizitzan. Kristau familietan jaio gara, beharbada krisialdiak izan ditugu fedeari dagokionez, kristau bezala heltzen eta hazten joan gara eta Jesusek -bere balioek, bizitzaren, pertsonen, Jainkoaren aurrean zituen jarrerek- gizatasun handiagoz bizitzen, gure bizitza bideratzeko eta eraikitzeko irizpide argiak izaten laguntzen digu.

Gure seme-alabari hazten laguntzea, fisikoki garatzeko behar duena emateaz gain, bizitzan ibiltzeko ezinbestekoak diren irizpide, jarrera eta balioak ematea ere bada.

Horregatik bataiatu nahi dugu gure seme-alaba, berak ere Jesus ezagut dezan eta Berarengandik bizitzen lagunduko dioten oinarri sendoak jar ditzan.

• Jainkoarenganako fedea beste fededun batzuekin batera, Elizan bizi dezala nahi dugu



Gure fedea beste fededun batzuekin batera bizi eta gehitu behar dugula dakigu. Gure fedea bakarka bizi ezkero, hoztu egiten dela konturatu gara. Jesus beste batzuekin batera ezagutu behar dugula sentitzen dugu, Jesusen Hitza beste batzuekin batera entzun behar dugula eta elkarrekin haren erara bizitzeko bideak aurkitu eta, asmatze eta akatsekin, Jesusen antzera bere Elizan bizi nahi duten beste fededun batzuekin batera ospatu behar dugula gure fedea.

Azken batean, zera nahi dugu: gure seme-alabak ikus dezala beste batzuek nola bizi duten kristau bizimodu hori.

• Gure seme-alaba pertsona zintzo eta zoriontsua izatea eta besteei zabalduta egotea nahi dugu

Guraso guztiok gure seme-alabentzat amesten duguna da. Guk sinisten dugunaren, zoriontsu egiten gaituenaren, irizpide sanoen arabera bizitzen lagunduko dieten arrastoak aurkitu nahi ditugu beraiengan eta aztarna horien atzetik joan daitezela.

Guk gure bizitza planteatzen eta planifikatzen lagundu digun izateko eta bizitzeko modua aurkitu dugu Nazareteko Jesusengan. Horregatik, gure seme-alabak Jesusengan aurkitu ditugun eta guri bizitzen laguntzen diguten irizpide, balio eta jarreretatik ibiltzen eta bizitzen ikas dezala nahi dugu.

3. ZERTAN KONPROMETITZEN GARA GURE SEME-ALABA BATAIATZERAKOAN?

Gurasook, gure seme-alaba bataiatzerakoan, ez dugu bera konprometitzen, geure burua konprometitzen dugu bere fedearen hezitzaile nagusi bezala. Eta, batez ere, honetan konprometitzen gara:

• Jesusen jarraitzaile bezala hazten eta heltzen jarraitzen

Bizitzako maila guztietan egunean jartzen saiatzen garen bezala, gure fedea ere zaindu eta gaurkotu egin behar dugu.

Jainkoaren Hitzera jo behar dugu behin eta berriz, bere mezuan bizirik agertzen den Jesusen Jainkoa aurkitzeko eta hobeto ezagutzeko. Eta, aldi berean, Jainkoarekiko harremanetarako eta Jainkoari otoitz egiteko une eta espazioak aurkitu behar ditugu, bertan gure kristau bizitzarako indar eta sustapena lortzeko.

• Gure bikote bizitza sinesten dugunaren isla bihurtzen

Fedea bizitzara eramaten ez badugu, azkenean, ezerezean geratzen da. Horregatik zera bilatzen dugu: gure etxean eta bikote harremanean Jesusengan aurkitzen ditugun balio, irizpide eta jarrerak azalera daitezela. Eta honetan ahalegintzen gara: elkarrizketa, errespetua, harrera, barkamena eta besteenganako konpromisoa gure bizitzako jokamolde egiten; horrela, gure seme-alabak kristau bizimodua zertan datzan ikusiko du eta kristau erara biziko da.

• Gure fedea kristau elkartean ospatzen

Bizitzako hainbat momentu ospatu nahi izaten dugu, gure ingurukoekin batera bizi. Fededun bezala ere, hainbat gauza ospatzeko nahia izaten dugu: Jainkoak maite gaituela, Berak zoriontsu nahi gaituela, guztiontzako mundu zuzenagoa bizitzeko eta egiteko dei egiten digula, salbatu egiten gaituela eta biziz bete.

Igandeko elkarraldian, Eukaristian, Jesusengan sinesten dugunok geure artean bizirik aurkitzen dugu: bideratzen gaituen, gure ibiliari indarra emateko janari bihurtzen den Hitzean, eta dei egiten digu gure bizitzarekin Bera iragar dezagun.

Eta hau, guretzat, beste fededun batzuekin elkartzeko, ospatzeko eta jai egiteko arrazoia da.

• Eta aita-ama pontekoak?

Dakigunez, aita-ama pontekoen egitekoa gurasoei haurraren erlijio hezkuntzan laguntzea da, haurraren ondoan egotea, Jesusen antzera bizi diren pertsona direla ikus dezan eta berak ere bizimodu horri ekin diezaion. Beraz, kristau elkartean parte hartzen duten, beren fedea koherentziaz bizi duten, haurraren bizitzako urteetan gurasookin batera fede hezitzaile izango diren eta kristau bezala duen hazkundea hurbiletik biziko duten bi lagun bilatu nahi ditugu, senide izan ala ez.

- Zer suertatu zaizue deigarrien “gure seme-alabaren bataioa” testu honetan?
- Zein arrazoi duzue zuon seme-alaba bataiatzeko?
- Zertan konprometitzen gara guraso bezala gure seme-alaba bataiatzerakoan?





Gure seme-alaba bataiatuko dugu

Bizitzako beste arlo batzuetan bezala, beretzat mesedegarri dena ematea da gure seme-alaba bataiatzea. Beranduago, eskaini dioguna ezagutu eta esperimentatu ondoren, berak askatasunez erabakiko du apurka-apurka ezagutzen eta bizitzen lagunduko diogun fededun bizimodu hori bere egin ala ez.

Beraz, gure seme-alaba bataiatzea:

- ***Jainkoa gure Aita*** dela aldarrikatzea da. Bera gure biziaren jatorrian dagoela, gure bizitzako ibilbidean bidelagun dugula, biziz betetzen gaituela, gure zoriona gartsuki bilatzen duela eta besteentzat bizi eta hurkotasun izateko dei egiten digula aitortzea.

  Honetan zehazten da: gure seme-alaba maitatzean, hazten laguntzean, berarengandik hurbil egotean, bere beharrei erantzutean, bere asmatze eta akatsekin onartzean. Hauxe da biderik egokiena gure seme-alabak gure Aita Jainkoaren maitasuna uler eta bizi dezan, aurretik bizi eta esperimentatu izan duelako gurasoek dioten maitasuna.

- ***Jesus gure bidea dela*** aldarrikatzea da. Jainkoari eta besteei begira, Jesusek bizimodu berria irakasten digula ikusi. Jesus, bizi erreferentzia eta eredu da fededunontzat eta Jainkoarekin komunikatzen ikasteko eta gure artean poztasun handiagoz bizitzeko estiloaz jabetzeko hurbiltzen gara Berarengana.

  Honek, zehazki, zera eskatzen du: gure seme-alabari irakatsi nahi dioguna geuk gurasoon artean benetan bizitzea. Elkarrizketatik, errespetutik, lankidetzatik, elkartasunetik bizitzen ikastea. Geu gara lehenengo hezitzaileak gure seme-alabarentzat. Gure bizimoduarekin pertsona bezala heziko da eta etxean ikusi eta bizi izan duena erakutsiko du gero. Eta gure seme-alaba Jesusengana hurbiltzera ere konprometitzen gaitu, horrela Jainkoaren eta besteen aurrean bizitzeko era berri bat ikus dezan Berarengan.

- ***Espiritua gure indarra dela*** aldarrikatzea da. Bizitzan ez gaudela bakarrik, Jainkoaren Espirituak gure bizitza adoretzen eta suspertzen duela ikustea. Gure beldur, bilatze eta zailtasunetan beti izango dugula Jainkoaren laguntza eta konpainia sinestea. Bere Espiritua ibiltzen irakasten eta laguntzen diguten guztiengan, aurrera egiten laguntzen digutenengan, gure min eta pozaldiak bere egiten dituztenengan agertzen da.

  Honetan zehazten da: gure seme-alabarentzat, bere lehenengo urteetan, segurtasuna eman eta konfiantza gehituko dion presentzia hurbil izatean, bere akats eta makaltasunen aurrean ulerkor izatean, bera sustatzean, dagozkion erantzukizunak hartu eta bere lorpen eta aukeretan sendo dadin. Eta beste honetan ere konprometitzen gaitu: Jainkoa bere bizitzan hurbil dagoen, bere ibilbidean bidelagun leiala

den eta uneoro babesa eta itxaropena ematen dion Norbait dela ikustarazten. Gurekiko, haurrarekiko eta gizaki guztiekiko harreman estua nahi duen Jainkoa da.

- ***Eliza gure familia ere badela*** aldarrikatzea da. Jainkoa lehenengo eta behin etxean jasotzen dugun doako maitasunean eta harrera eskuzabalean agertzen zaigula sentitu eta horregatik eskerrak eman. Bataioaren bitartez Eliza den familia handi horretako kide bihurtzen gara, beste fededun batzuekin batera bizi dugularik ematen den eta besteekin partekatzen den Maitasuna.

  Ondorioz, etxean giro ona sortzen eta bizitzen saiatu behar dugu, gure seme-alabak bere hazkunde eta heldutasun pertsonalerako behar duena jaso dezan eta familia egitasmoarekin bat egin eta bertan lankide izan dadin. Eta kristau elkartea Jesusen jarraitzaileon familia handia dela, bertan gure fedea ospatzen dugula eta bizitzara eramateko bultzada jasotzen dugula ikustarazten lagundu behar diogu.

Zuon seme-alabarentzat Bataioa eskatzeko erabakia hartzearekin batera, zuon parrokiara jo behar duzue garaiz, eskaintzen diren elkarraldi edo bileretan parte hartu ahal izateko. Han, Bataioari buruzko gogoeta eta galderak beste guraso batzuekin, apaizarekin edo kristau elkartearen izenean harrera egingo dizuen beste norbaitekin konpartitzeko aukera izango duzue. Bataio ospakizuneko errito eta zeinuak ere ezagutuko dituzue; horrela, ospakizunean bizitasun handiagoz parte hartuko duzue eta hori aberasgarriagoa izango da zuontzat.

Bataioaren ospakizuna

Bataioaren ospakizuneko une desberdinen berariazko esanahia aurkeztuko dugu, horrela sakontasun handiagoz bizi dezagun.

HARRERA ETA GURUTZEAREN SEINALEA

Kristau elkarteak pozarren egiten dio harrera mutiko edo neskatoari. Gurasoek, berau aurkeztean, zein izen jarriko dioten adierazten dute eta bataioa eskatzen dute haurrarentzat. Ospatzaileak, gurasoek eta aita-ama pontekoek kristauon berariazko ezaugarria den gurutzearen seinalea egingo diote.

JAINKOAREN HITZA

Bibliatik hartutako Jainkoren Hitzaren irakurketa eta ondorengo gogoeta lagungarri dira sakramentuaren ospakizunaren esanahian sakontzeko.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Elkarrekin otoitz egiten dugu bataioa hartuko duenaren, bere guraso eta aita-ama pontekoen, Elizaren eta munduaren alde.

SANTUEI ERREGUTU

Santuen eta batez ere bere izenekoaren eta Bataioa ospatzen den parrokiako zaindariaren laguntza eta babesa eskatzen dugu haurrarentzat.

KRISTAUGAIEN OLIOAREKIN IGURTZI

Jaungoikoaren Espirituak Bataioa hartuko duenari txarkeriaren aurka borrokatzeko indarra emango diola adierazten du zeinu honek eta beronekin batera egiten den otoitzak.

KONPROMISOAK (UKO EGITEAK) ETA FEDE AITORMENA

Gurasoek eta aita-ama pontekoek, elkartearekin batera, era guztietako txarkeriari uko egiteko konpromisoa adierazten dute eta beren seme-alabak Bataioa hartuko duen Elizarenganako fedea hots egiten dute.

BATAIOA URAZ

Ospatzaileak Hirutasun Guztiz Santuari erregutuz ura isurtzean, bataiatua garbi geratzen dela eta egunez egun Jesusen ikasle bezala hazten joan behar duen bizitza berrira birsortzen dela adierazten du.

KRISMAZ IGURTZI

Bataiatuaren burua Krisma Santuaz igurzteak berarengan Jesukristo Jainkoaren Semearen irudia daraman kontsakratuaren duintasuna adierazten da.

JANTZI ZURIA EZARRI

Bataiatuak, kreatura berri izanik, txarkeria guzitik garbi eta Jesusen ikasle bezala biziz iraun behar duela adierazten du.

ARGIA EMAN

Kristo Berpiztuaren sinbolo den Pazko-zuzitik hartutako argia ematen zaie gurasoei, Jainkoaren Hitzaren gidaritzapean, beren seme-alabari Jesusenganako fede bizia helarazten eta berarengan garatzen saiatzeko eskatuz.

GURE AITA ERREZATU

Denek batera otoitz egiten diote Aitari Jesusek ikasleei irakatsitako hitzekin.

AGURRA

Azkenean, Jainkoaren bedeinkapena bertaratutako guztientzat eskatu ondoren, elkar agurtzen dugu, ospakizunean misio jakin bat jaso dugula ahaztu gabe: Jesusen lekuko izan, hitzez eta egitez, eguneroko bizitzan.